



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Leire Bazterrika Loiarte andrea.
Francisco Michelena Celayeta jauna.
Ezekiel Loiarte Santesteban jauna.
Martxel Elizalde Elizalde jauna.

2021eko otsailaren 17an, 19:30etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak gaia azaldu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 5
Abstentzio 2

1.- 2020ko azaroaren 25eko, 2020ko abenduaren 17ko eta 2021eko urtarrilaren 22ko aktak onartzea.

2. OIHAN ENKANTEA: AZKARATEAKO LOTEA BERRIZ ENKANTEAN ATERATZEA.

Udalburuak azaldu du urtarrilaren 22an ospaturiko Osoko Bilkuran Azkarateako lotea (2. lotea) esleitu gabe gelditu zela, ez baitzen eskaintzarik jaso. Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 2

1.- Azkarateako lotea enkantean berriz ateratzea %10eko deskontuarekin (10.958,22 eurotan).

2.- Oihan enkantea 2020ko azaroaren 25eko Osoko Bilkuran onarturiko pleguen arabera arautzea.

3.- Enkantea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta egunkarietan argitaratzea, eskaintzak aurkezteko 15 eguneko epea emanez.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

3. 2021EKO AURREKONTUEN EXEKUZIO OINARRIAK: HASIERAKO ONESPENA.

Udalburuak gaia azaldu eta kontuhartzaileak prestaturiko exekuzio oinarriak aurkeztu ditu. Gaia azaldu ondoren bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 2

1.- 2021eko aurrekontuen exekuzio oinarriak hasiera batean onartzea.

2.- Akordioa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez, NAO-n argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

3.- Akordioaren berri NAO-n eta Iragarki Oholean ematea.

4. ESKAERAK.

4.1.- S. H. I. jaunak haritz amerikarra aprobetxatu zuen 2. poligonoko 511. lurzatian. Ikusita aipaturiko lurzatia komunala dela eta basozainak egindako zuhaitzaren balorazioa. Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 2

1.- S. H. jaunari haritz amerikarraren aprobetxamendua esleitzea 18 eurotan, basozainak egindako balorazioaren arabera.

2.- Oroitarazten da, partikularrek ezin dutela komunalak diren lurretatik zuhaitzak aprobetxatu Udalak aprobetxamendu hauek esleitu gabe.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

4.2.- M. B. jaunak 2020ko auzolanak aurten egiteko eskaera aurkeztu zuen. Ikusita 2020ko auzolanak ez egiteko ez dela nahiko arrazoirik justifikatu, Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 2

1.- B. jaunaren eskaera ez onartzea



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

4.3.- Herri Urratsek laguntza eskatu dio udalari. Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 2

1.- Herri Urrats 100 euroekin diruz laguntzea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

5. ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (68/2020. ebazpenetik 12/2021. ebazpenera) eta Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

6. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da: Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistroan emandako altak –T. O. F.—; Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistroan emandako izen aldaketak –M. F. L. J.-tik F. J. S. L.-ra eta J. S. S.-etik M. I. S. S.-ra—; NUFKek hiri eremuak berreskuratzeko emandako diru laguntza; Administrazio elektronikoa ezartzeko diru laguntza; Euskarabideak Euskara sustatzeko jarduerak egiteko emandako diru laguntza; Nafarroako Gobernuaren Museotako Zerbitzuak Errotako Ekomuseorako emandako diru laguntzak (inbertsio eta funtzionamendurako); Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak 2019-2020 kanpainan mendiko lanak burutzeko emandako diru laguntza; Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazio Sailari egindako landaketa eskaerak –I. G. M.—; Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazio Sailari egindako aprobetxamendu eskaerak –M. T. O., M. J. P., M. J. E., L. J. G. eta S. I. M.—; Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazio Sailari egindako oihan aprobetxamendu baimenaren luzapen eskaerak –M. S. L., J. P. P. eta R. E.—; Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazio Sailari egindako landaketa eskaerak –I. G. M.—; Baso eta Zinegetika Zerbitzuak 2021eko etxeetarako loteak ateratzeko emandako baimena; Udalak 2021eko sakabanatutako zuhaitzen aprobetxamendurako egindako eskaera; Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazio Sailari emadako erretzeko baimenak –M. M. M., P. S. S. eta Zubieta Udala—; Kantauriar Isurialdeko Konfederazioak Zartakadi erreko polizi eremuan zuhaitzak mozteko emandako baimena –Maderas Santesteban S.L.—;



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

7. GALDE ESKEAK

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 20:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.